

GAUTEGIZ-ARTEAGA / Sei hilabeteko ibilbide oparoa

GORANE BARRENETXEA

Gautegiz Arteagako Aretxederreta kultur etxeak urte erdi darama martxan, 2008ko abenduaren 2tik, hain zuzen ere. Hilabete hauetan kultur etxeak herrian izan duen eragina oso modu baikorrean baloratu du Kultura batzordeak. Sei hilabete hauetan arteagarren artean leku garrantzitsua lortu du, dio Iñaki Urrutxua Kultura zinegotziak.

Kultur etxea neguan ireki izanak erabiltzaile kopuru altua erakarri du. Izan ere, negu garaian jendeak leku itxien berotasuna bilatzen du, dio Johana Olabarria kultur etxeko dinamizatzaileak. Oraindik ez dute zenbateko zehatzik, baina erabiltzaile kopurua oso altua izan dela azpimarratzen du Olabarriak, batez ere liburutegian. Dozena bat pertsona pasatzen dira bertatik egunero. Bestalde, zerbitzu erabilien artean KZgunea eta liburutegia daude, azken hau batez ere azterketa garaian. Bestalde, kultur etxean egunero ikastaro bat dago eta hauetan hogeitase pertsonak parte hartzen dute batz bestea.

Antolatutako jarduerak

Aretxederretan denetarik egiten da: ikastaroak, dantzak, bilerak, hitzaldiak eta behar denean merendolak, dio Mari Kruz Berrojaetxebarria Gautegiz Arteagako dantza taldeko kideak.

Azken finean, Aretxederra arteagar guztiei irekitako gunea dela diote. Are gehiago, herritarrak eurak dira ikastaro eta ekintzei buruzko eskaerak egiten dituztenak, gunearen ahalik eta erabilera hoberena lortzeko, aipatzen du Urrutxuak. Haren esanetan, Aretxederretan urteko ikastaroak daude: eskulanak, pilates, kardiobox eta umeei zuzendutako musika hezkuntza. Bestalde, zatikako ikastaroak ere eskaintzen dituzte bertan. Esaterako, orain gitarra ikastaro bat dago eta laster perkusioko beste bat antolatuko dugu, azaltzen du Olabarriak. Zoritxarrez, eraikina ez dago prestatuta erakusketak antolatzeko, ez baitago gune zabalik. Hala ere, bi antolatu izan ditugu. Bata Montorreko guraso elkarteak txoriaren eguna ardatz hartuta gauzatu zuena, eta bestea Jabier Etayo marrazkilariarena, dio olabarriak.

Aktibitate handia

Hitz gutxitan, azken sei hilabeteetan kultur etxeak izugarrizko aktibitatea jasan du eta gehiena herriko talde ezberdinek gauzatutakoa gainera. Azken finean, herriko elkarteek ekintzak aurrera eramateko leku aproposa da. Lehen frontoia zen herriko bilgunea eta orain kultur etxea da. Udaren etorrerak seguruenik erabiltzaileen kopurua jaitsiko du, baina eskaintza dagoen bitartean dena ondo joango da, gaineratu du Iñaki Urrutxuak.

Guztira, kultur etxean eskaintzen dituzten zerbitzuak honakoak dira: KZgunea, liburutegia, ludoteka, nagusientzako lokala eta areto nagusia.

Kultur etxeak herriko elkarteen elkarlana bultzatu du

Kultur etxearen muina ez da eraikina, baizik eta bere hormen barruan batzen den kultura batzordea, azpimarratzen du Olabarriak. Talde hori orain dela hiru urte jarri zen martxan, hau da, Aretxederreta eraiki baino askoz lehenago. Dena dela, kultur etxearekin bere funtzionamendua asko aldatu dela esan dute. Herrian kultur talde pilo bat gara. Kultura batzordea sortu baino lehen bakoitzak bere kabuz antolatzen zituen ekintzak, eta askotan aktibitateek egunetan eta orduetan bat egiten zuten. Egun, Kultura batzordearekin dena aldatu da, guztion artean ekintzak antolatzen saiatzen garelako, dio Paulino Ribas Antoliñape Kultur Elkarteko kideak. Eta ez hori bakarrik, ahal dugun heinean aktibitateak elkarrekin antolatzen ditugu, elkarlana bultzatzeko, dio Josu Mendiola Gazte elkarteko kideak.

Gauegiz Arteagako herri mugimendua agerikoa da. Herriko kolektiboek elkarrekin lan egiten ikasi dute eta herrian sortu den bizitza soziala horren ondorio da, aipatzen du Olabarriak. Era berean, herriko kultur elkarteak dira eraikinaren eta bere barnean antolatzen diren ekintzen arduradunak. Hau da, Gauegiz Arteagan ematen ari den mugimendu kulturalaren erantzule bakarra herria bera da.

Etorkizuna

Gauegiz Arteagako Udalari Aretxederreta bezalako eraikina izateak ekonomikoki ahalegin handia suposatu dio, baina herritarren erantzuna oso ona izan da, dio Urrutxuak.

Etorkizunari begira eraikinak moldaketa prozesu bat eroan beharko du, agertzen doazen beharretara egokituz. Honek suposatzen duen inbertsio ekonomikoarekin, dio dinamizatzailleak.